

# Intermodal honi EZ

## Ez hondatu Arriaga parkea



# GELTOKI INTERMODALA ETA TRENBIDEAREN LURPERATZEA BIRPLANTEA DITZAGUN!

Vitoria-Gasteizko Hirigintza Plangintza Orokorrak gaur egungo trenbidea lurperatzea eta hiriaren iparraldetik desbideratzea planteatzen du, baita Arriagako parkearen zati handi bat okupatuko duen geltoki intermodala eraikitzea ere. Geltoki honek autobusak, gaur egungo trenea eta etorkizuneko abiadura handiko trenea (AHT) hartuko ditu. Bi azpiegitura hauei hotel bat, bulego eraikin bat eta merkatal zentro bat gehitu nahi die.

## 1. Lurralde eredu jasangaitza defendatzen du


Plan honek, hiri kohesionatua, justua eta ekologikoa eraikitzeko helburua alde batera uzten du. Hiritarrek arazo sozialei, ekonomikoari eta ingurumenekoei aurre egingo dien hirigintza behar dute:

- Proiektu honek bultzatzen duen lurralde ereduak ez du ondare naturalik eta kulturalik babesten. Eta nekazal lurrak okupatuko ditu, horrek dakartzan ondorioekin.
- Arriagakoa bezalako parkeak ezinbestekoak dira periferiako eraztun berdea osatzeko eta hiriaren gehiegizko hazkundera geldiarazteko. Parke hauek hiriko ezinbesteko ekipamendutzat hartu behar dira, hiriaren eta hiritarren ingurumen, osasun eta bizitza kalitatearen onura suposatzen baitute.
- Plan hau ondorengo belaunaldiekiko izugarrizko arduragabekeria da.

## 2. Ez du garraio eredu jasangarri eta publikoa bultzatzen

Plan honek ez du garraio jasangarriaren aldeko benetako apusturik egiten, kontraesan handiak ditu. Alde batetik garraio publiko intermodala proposatzen du, berez positiboa dena, baina aldi berean autoaren erabilera bultzatzen du:

- Zonalde batzuen peatonalizazioa eta bide gorri sarea planteatzen dira, baina autoaren erabilera bultzatzen duen hazkunde ereduarekin jarraitzen dute: hiria, periferiako saihebidetako handi baten inguruan ari dira egituratzen desplazamendua gutxitu eta gertutasuna bultzatu beharrean. Oinez, bizikletaz eta garraio publikoak akzesibilitatea irabaztea izan behar da helburua.
- Geltoki intermodal egoki bat beharrezkoa da, baina intermodal hau AHTaren geltoki bezala planteatzen dute. Proiektu honen aurka ditugun arrazoiak AHTaren aurka ditugunaren berdinak dira. Bi proiektuek eredu antisoziala eta ingurumenarekiko errespetu falta dute komunean.



### 3. Proposatutako kokapena onartezina da


Geltoki intermodal berriaren kokapena baztertzeko arrazoiak ugariak dira:

- Jende gehien biltzen den hiriko gunetatik urrun geratzen da, hala nola erdialdetik edo unibertsitatetik, geltokiaren erabilera murriztuz.
- Intermodaletik nahi dugun lekura joateko, beste garraiobide bat erabili beharko dugu, garraio publikoaren erabilera deserosoago eginez, oinezko metodoa desagertuz eta lehendik saturatua dagoen trafikoa gehituz.
- Kokapen honekin, garraio iraunkorraren aldeko apustua eta intermodalaren aldeko bultzada alde batera uzten dira.
- Arriagako parkearen okupazioa onartezina da, eta gainera ez dugu garantiarik etorkizunean geltokiaren balizko handitzeak azalera gehiago hartuko ez dutenik.
- Geltoki intermodalarekin batera hotel bat, bulego eraikin bat eta merkatal zentro bat ere eraikiko dira; guztiak parkearen azalera okupatzen. 500 zuhaitz edo zuhaixka baino gehiago moztuko dira. Horregatik, Arriagako parkea dagoen bezala mantentzea exijitzen dugu.

### 4. Aztertu ez diren beste alternatiba batzuk daude

Gaur egungo trenbideak suposatzen duen oztopoa desagertzeak, hegoaldeko auzoak gainontzekoekin hobeto komunikatzea ekarriko luke, hiria hobeto egituratzea ahalbideratuz. Gasteiztarrek hiri lurra irabaziko lukete gizarte eta hiri erlazioetarako espazio berrien sorrera ahalbidetuz eta bizi kalitatean irabaziz.

Hau posible izateko bide ezberdinak daude, eta horregatik eskatzen dugu hiritarren iritzia kontuan izanez eta beste alternatiba batzuk aztertuz, proiektua birplantatzea.



## 5. INFORMAZIO, GARDENTASUN eta PARTEHARTZE GABEZIA izan da

Udalaren osoko bilkurak, proiektuari aurkezturiko 440 alegazioak baztertu ditu, hiritarren iritziei entzungor eginez. ELAren alegazioak barne, non, iraunkortasun, justizia sozial eta hiritarren partehartze irizpideak aplikatuz, proiektua birplanteatzea eskatzen genuen.

Prozesuak gardenak, informatuak eta partehartzaileak izatea eskatzen dugu. Nahi dugun hiriaren inguruko hausnarketak ahalbideratzea eta hiritar guztiok esku hartzea. Eztabaida honetan eragile sozial ezberdinek hartu behar dute parte (bizilagunak, elkarteak, ikastetxeak, unibertsitateak,...).

**Arrazoi guzti hauengatik, geltoki intermodalaren eta trenbidearen lurperatzearen proiektua birplanteatzea, hiritarren iritzia kontuan izatea eta jendea informatzea exijitzen dugu ELAtik. Alternatiba egokiagoak eta Gasteizko hiritarren beharrei hobeto erantzuten dietenak aztertzea eskatzen dugu.**

